

MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEKO TITULAZIOETAKO HAUTAZKO KREDITUEN AITORPENA

EHUko araudi orokorraren arabera, kredituengatiko onarpen akademikoaren xede izan daitezke kultura, kirol, ikasleen ordezkartza, elkartasun eta lankidetzaz-jarduerak, betiere gehienez ikasketa-plan osoko 6 ECTS kreditu lortu ahal izango direlarik.

6 ECTS kredituko muga horretan sartzen dira graduaz onartutako curriculumetik kanpoko jardueraz guztiak (kanpo-praktikak, jardunaldiak eta mintegiak, kultur, kirol, ikasleen ordezkartza, elkartasun eta lankidetzaz-jardueraz gain).

Ikastegiak 6 ECTS kredituko programa itxi baten bidez onartu eta eskaini dituen kanpoko borondatezko praktiken kasuan izan ezik, curriculumetik kanpoko gainerako jarduerak ikasturte bakoitzeko 3 ECTS onartuko dituzte gehienez jardueraz mota bakoitzeko (ikasleen ordezkartza, kirol-jarduerak, kulturaz-jarduerak, elkartasun eta lankidetzaz jarduerak).

<https://www.ehu.es/es/web/estudiosdegrado-graduakoikasketak/kredituak-transferitu-eta-onartzeko-arautegia>

Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak egiaztatu behar dituen jardueren kasuan, Akademia Antolakuntzako Batzordeak ezarriko du zein diren jardueraz bakoitzean hautazko kredituak aitortzeko irizpideak. Irizpide horiek honelako alderdiak hartuko dituzte kontuan: eskatutako aurrez-aurrekotasun maila, jardueraren prestakuntzarako inplikazioa edo jardueraren ondorengo onura, jardueraren intentsitatea (etengabeko arreta edo arreta etena), etab.

Osasun arloko jardueren kasuan, aurrez aurreko 15 ordu beharko dira ECTS kreditu baten aitortpena eskatzeko. Irizpideak aldeaz aurretik ezar daitezke fakultatearen eta osasun zientzietako prestakuntzaz jardueren sustapenarekin lotutako erakundearen artean (lanbide elkargoak edo antzekoak, esaterako) erabakitako jardueretarako.

Modu indibidualean ere ezar daitezke aldiari behingo jardueretarako, fakultateko ikasleek antolatutako jarduerak lehenetsita. Jardueraz horiek iragarri egingo dira ikasleak bertaratu eta kredituak lor ditzaten ahalbideratzeko.

Ikasleek kredituen aitortpena eskatzeko prozedura

Ikastegiak ezarritako epean, ikasleak nahi duen kreditu kopurua aitortzeko eskaera aurkeztuko du, dagozkion akreditazioak eta ziurtagiriak aurkeztuz.

Erakunde antolatzaileak kredituen aitortpena eskatzeko prozedura

Bi hilabete lehenago, ekitaldiaren antolatzaileek eskaera orria (I. eranskina) beteko dute dekanuari zuzenduta. Eskaera Akademia Antolakuntzako Batzordeak aztertu eta balioetsiko du. Batzorde horrek ezarriko du zenbat ECTS kreditu aitortuko diren eta zer baldintza bete beharko diren kredituak aitortzeko, lehen zehaztu bezala.

I. ERANSKINA

MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEKO IKASLEEI CURRICULUMETIK KANPOKO JARDUEREN BIDEZ HAUTAZKO KREDITUAK AITORTZEKO ANTOLATZAILEEN ESKAERA ORRIA

Jarduera mota: _____

Jardueraren izena: _____

Jarduera egiteko tokia: _____ Datak: _____

Aurreikusitako parte hartzaileak: _____ Ordu kopurua: _____

Aurreikusitako asistentzia kontrola: _____

Parte hartze mota eta aurreikusitako egiaztagiria: *bertaratua* *hizlaria*
 bestelakoak

Jarduera egitea proposatu duen erakundearen identifikazioa eta jardueraren arduraduna:

Proposamena abalatzeko UPV/EHUren Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakasle-
ikertzailea:

Jardueraren laburpena (200 hitz, gehienez) (***Erantsi programa, halakorik bada***):

Oharra: Ekitaldiaren antolatzaileak arduratuko dira asistentzia kontrolaz. Asistentzia hori %85etik gorakoa izan behar da baliozko bertaratze ziurtagiri bat emateko hautazko kredituak aitortzeari begira. Asistentzia kontrolak ikastegira igorriko dira, baita parte hartzea egiaztatuta duten ikasleen zerrendak ere.

Data eta sinadura

Sin.: